

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995eko azaroaren 3a



FERNANDO HOJALE

Pirinioak, hartz arreen azken gordelekua

■ Nafarroako Gobernuak hartz arrea berreskuratzeke plana onartu berri du Fauna Babesteko eta Kudeatzeko Legearen aginduari jarraituz. Izan ere, desagertzeko arriskuan dago gaur egun hartz arrea. Pirinioetan, bederatzi baino ez dira

bizi bertako basoetan eta euren etorkizuna ez dago argi. Gobernuaren plana Erronkariko hiru eskualdetan ezarriko dute. Horren berri izan bezain laster, tirabirak hasi dira Gobernuko eta bailarako ordezkarien artean. ■

Marilyn eta hegaztiak

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



USOAK milioika etorri ziren eta egun argitzea belztu egin zen bat-batean. Hegalak habaila bizian mugituz pasa ziren, lurralde *maitagarri* hau presaka eginiko zirinez goroztu bidenabar. Ehiztarien begiez bete zuten haien zorroa eta hegoaldera segitu zuten (ez denek, ordea), Arbizu izeneko parajeen Euskadi imajinatzen ari zen Olasagarre oilagorriari agur erran eta gero.

Andre-haizea hasi zuen orduan, zakar, eta zerutik Mary Poppins bere guardasolarekin jautsi zitzairen gure tikiel, eta aingeru bat eman ziguten erre-galo jainkoek adineko sinesgogor-goei: gure Marilyn!, loaren nagiak ateratzen heldu zela. Hego epelak gona bete eta harrotu zion, eta zerbait aterako zen esperantzaz, ahoa zabal-za-

bal, Felez (bele-z, bele lez) fiskalak, mokotik lerdea zeriola hari begira hura ere, Marilyn guzien kontrako bere txostena idazten zuen bitartean.

Baina bai zera!, lau ttantta kaxkar bertzerik ez, eta idortea are latzago. Bidasoak eta urtegiak hustu, eta gaizki gordetako gorpuak begien aintzinerara agertu (ez denak, ordea). Ustekabeko ikararekin, herri honetako pauma batzuei luma liluragarriak zimeldu-erori eta azpian zeuden putre beltzak ere begien bistara atera ziren (ez denak, ordea).

Itoitzetik lau teilaturen doinua ailegatu zen gureganaino, eta gu goruntz begira jarri ginen, eta han urrun, oraindik biziargi zen ilargiaren azpian, lau saguzar ikusi genituen ortzadarraren hari-

tatik buruz beheiti zintzilik, lo-kuluxka egiten ari zirela. Pitillasko hankaluzeez karta egin ziguten, aintziran lohia bertzerik ez zegoela, eta altzairuzko hegazitzarrek erresuma osoa nahasmen-alez erein zuten.

Iluntzean besta egin genuen oiha-nean, bisitari izan ditugun bi kaiotei despedida egiteko. Koadrila ederra elkartu ginen: paretxoriak, epetxak, kardelinak, enarak, txantxangorriak, biligarroak, kaxkabeltzak, kaxkaxoilak... eta zenbait buxtan-ikara. Gaua ongi zurrupatu genuenean eta dena laino jarri zenean, ispiluko bere irudiarri maite zaittut-ka harrapatu nuen gure Lankratx. Ordu-rako ni bezain mozolo zegoen. Elkarri lagun eginez ailegatu ginen bakoitza bere kabira. X

ERAKUSKETAK

Burlatako udaletxeko kultur aretoan 'TransvERSIONES' izenburupean Pablo del Barcoren margoak ikusteko aukera dago. Erakusketa azaroaren 16ra bitartean dago zabalik asteartetik larunbatera 19.00etatik 21.00ak arte eta igandeetan 12.00etatik 14.00ak arte. Astelehenean aretoa itxita dago.

Lacava kafetegi galerian Carlos Cirizaren margoak ikusteko parada dago, azaroaren 19ra bitartean.

Zizur Nagusiko Kultur Etxean Maria Soledad Melero 'Morele-ren' eskulturen erakusteta dago zabalik azaroaren 12ra arte. Erakusketa 12.30etatik 14.00ak arte eta 19.00etatik 20.30ak arte dago zabalik.

KONTZERTUAK

Zangozako Geminis dantzalekuan Viceversa taldeak joko du bihar. Kontzertua gaueko 11.00etan izango da. Sarrerak aurretik hartuz gero 1.200 pezeta balio du eta leihatilan 1.500 pezeta kostako da.

Garesen Los del Tonos taldeak joko du bihar. Kontzertua gaueko 11.00etan izango da Fundamantal aretoan.

ANTZERKIA

Bargotan Udazkeneko Bira 95 egitarauaren barruan Kilkarrak antzerki taldeak 'Agua al fuego' lana antzeztuko du bihar. Emaldia herriko behitegian izanen da arratsaldeko 8.30etan.

Eugiko frontoian Udazkeneko Bira 95eko egitasmoaren barruan ere Retablo de Figurillas taldeak 'Esmeraldo y Esmeraldina. Historia de amor muy fina' aurkeztuko du frontoian arratsaldeko 6.00etan.

IBILALDIAK

Oberena kirol elkarteak Bardeetara mendi ibilaldia antolatu du igande honetarako. Irteera goizeko 8.15etan izango da eta etorrera arratsaldeko 15.30ak aldera. Izena emateko epea gaur arratsaldeko 8.00etan akituko da eta 23 50 75 telefonora deituz edo Iruñeko Sebastian Alberto kalean duen egoitzara joanez egin behar da. Autobus txartelak 800 pezeta balio du helduentzat eta 500 haurrentzat.

BERTSO SAIOAK

Arbizun, Alai Bide elkartearen bertso afaria izango da bihar 21.00etan. Bertso kantari Jokin Sorozabal ariko da.

Urepelen igandean Xalbadorren Eguna ospatzeko bertsolariak izango dira arratsaldeko 4.00etan Ezker Paretan. Bertso kantari Estitxu Arozena, Jokin Sorozabal, Jexux Mari Irazu, Aritz Lopategi eta Unai Iturriaga izanen dira. Gai-jartzaile Pantxo Irigoi izango dute.

nafarkronika

Gaizka Aranguren

Badena dena da

Patxi Zabaletak Herri Batasunako Mahai Nazionalean egoteko aukerari uko egin dio. Nafarroako abertzaletasunaren aurpegiak ezagunenak Alderdi ez den alderdiaren batzorde eragilean egoteari uko egin dio. Ez dugu jakin HBko kideek berriro ere aukeratu luketen ala ez, eta nahita edo nahi gabe ez du balizko ezezkoaren arriskua dastatuko. Zabaleta jaunaren ibilbide politikoari, interes handiz eta urte luzez, so egon direnek, Leitzako politikoa desagertuko ez dela badakite ongi aski.

HBko gorengo egituretatik landa eta, batek daki! agian nafar legebiltzarretik at aurki, ez zaizkio elkarrizketa eskariak eta tertulia saioak faltako. Normalean horrela gertatzen da edozein alderditako egitura eta diskurtso ofizialek aldentzen direnekin. HBko egiturek baloratu beharko lukete, ezker abertzaleak komunikabideekin dituen arazoak aintzat hartuta, ez ote duen bere jardunaren aldeko urrezko baliabide berria aurkitu Zabaletaren egoera berriarekin. Leitzarrek, agian, ikusia du.

Alta, Zabaleta idazlea gailenduko dela ematen

du. Azken urteotan Amala karrrikako abokatua-rekin segundu edo minutu eskaseko elkarrizketaren bat izateko aukera ukan duenari ez zion ihes eginen bere idazteko —eta irakurria izateko— grinak. Bere bulegoan, Entzutegian, edonon, «irakurri duzu?» hori itzuriezina zen. Inoiz baino gehiago, bere egitasmo literarioak aipatzerakoan zegoiten dir-dir begiek.

Badena dena da. Patxi Zabaletak, euskarak hausnarketa filosofikoetarako duen gaitasunarekin jolastu nahi duela ematen du. Oreaki uko egin nahi izan zion Araxesen erztetatik Iruñerako bidean ekarri gintuenean. Orduko *Ukoreka* hartan gaurko *Badena dena da* honetaz mintzatu zitzaigun. Bere oraingo uko politikoa orekarik hautsi duela uste dutenei «dagoena da guztia, existitzen dena da orotasuna, edo badena dena dela» erantzun diezaike Zabaletak.

Jolastu dezagun politikoki guk ere hizkuntzarekin. «Badena dena da» esaldiaren osagarri izan daiteke bertze hau: Ez dena ez da, edo, ahozkatuz gero, Eztena ez da. Eta, kantuak bezala, nire buruari galdegiten diot: Nafarroa, Nafarroa, Eztena gabe nora hoa?



asteko pertsonaiak



Juan Ustarroz
CBNko entrenatzailea

■ Juan Ustarroz, CBNko (Nafarroako Saskibaloitza Taldea) entrenatzaile eta lehendakariak ostegunean gose greba hasi zuen berak zuzentzen duen emakumezko saskibaloitza taldeak bizi duen egoera ekonomiko larria plazaratzeko. CBNko arduradunak dioenez, Nafarroako Administrazioak ez dio behar adina laguntza ematen goi mailako kirolari eta ondorioz egun, taldearen bideragarritasuna ezinezkoa da 25 milioi (milioi bat libera) zor dituelako dagoeneko. Herrialdeko Gobernuak lehendakaria den Javier Otanori behin baino gehiagotan saskibaloitza taldeak bizi duen egoera larria azaldu dio Ustarrozek baina arazoetaz mintzatzeko bilduko zirela ziurtatu arrear, oraindik ez dute bilerarik egin.



Mikel Illarregi
UEMAko lehendakaria

■ Mikel Illarregi Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakari izendatu zuten joan den asteburuan Lizartzan (Gipuzkoa). Leitzako alkateak urte asko eman zituen herriko ikastolan lanean eta oraingo kargua ere pozik hartu du bere gain. UEMAk bere bigarren jardunaldiak ospatzen ari zela izendatu zuen lehendakari berria Antton Iztuetaren ordeiz. Jardunaldi hauetan, halaber, elkarteak partaide diren 23 udalerriek asmoak bateratu eta mankomunitatea indartzeko konpromezua hartu zuten. «Hurrengo lau urtetan euskararen erabilera-plangintzak indartu nahi ditugu» azaldu du Elkarteak lehendakari berriak. Herritarren partaidetza edo inplikazioak garrantzi handia duela azpimarratu du Mikel Illarregik ere.

ahaztu gabe!



MENDI IKASTAROA

Nafarroako Kirol Tadeak (Club Deportivo Navarra) mendian ez galtzeko eta nola bideratu behar den jakiteko ikastaroa antolatu du. Mendi ikastaroa heldu den azaroaren 8an, asteazkena, hasiko da eta lau egun iraungo du, azaroaren 12ra bitartean. Ikastaroan iparrorratzarekin mendian barna orientatzen, mendian eguraldiaren arabera sor daitezkeen arriskuei nola aurre egin —dela hizotza, lainoa edo elurra— eta natura interpretatzen ikasiko dute partehartzaileek. Ikasitakoa praktikan jartzeko mendi irteerak ere egingo dituzte herrialdeko hainbat tokitara. Ikastaroen berri gehiago jakin nahi duenak edo izena eman gura duenak, 22 43 24 edo 22 98 20 telefonoetara deitu behar du arratsaldeko 7.00etatik 9.00ak bitartean edo elkarteak Iruñeko Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzatik pasa daiteke aurreko ordutegi berean. Era berean, kirol elkarteak gogoratu nahi du bertako bazkide direnek eskiatzera joateko federatzeko epea zabalik dagoela eta nahi duenak izena eman deza-keela egoitzan edo bertako telefonoetara deituz.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Zangoza

Kultur egitarau zabala azaroan

Azaroan zehar erakusketa, musika saio, hitzaldi eta ikastaro anitz izanen dira

Kultur ekitaldi anitz izanen dira Zangozan azaroan zehar; besteak beste erakusketak, musika, hitzaldiak eta ikastaroak antolatu dituzte hirian hil honetarako. Aurreneko ekitaldia, 'Euskara betiko mintzoa' erakusketa, jadanik martxan dago, atzo bertan zabaldu baitzuten.

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Gobernuko Hizkuntz Politika sailak euskarari buruz antolaturiko erakusketa sei arlotan banaturik dago: euskara eta Nafarroako Erreinua, hizkuntza eta kulturen elkarbizitza historikoa Nafarroan, euskal toponimiaren mugak, euskara eta eliza, deseuskalduntze prozesua eta etorkizun itxaropentsua. Erakusketa ezezik, bideo bat ere ikusgai izanen da Zangozako Kultur Etxean, hilaren 12ra arte.

Kultur Etxera hurbiltzen direnek 'Mikologia' erakusketa ikusteko parada ere izanen dute etzi eta astelehenean. Bigarren erakusketa hau Zangozako Ikastolak eta Kultur Etxeak elkarrekin antolatu dute. Hilaren bigarren hamabostaldian, berriz, 'Argazkilari nafarren talde erakusketa' antolatuko dute Bianako Printzea Erakundeak eta Nafarroako Argazki eta Zinema Elkarteak. Zangozako Udalak lagunduko duen erakusketa honako argazkilari hauen lanak izanen dira ikusgai: Javier Gamez, Jesus Sa-



Olentzeroren 25. urteurrena ospatuko dute Zangozan.

ARTXIBOKOA

rries, Andoni Torres, Jose Angel Ayerra, Javier Armendariz, Estrella Garcia, Jose Javier Huarte, Jose Antonio Perez, Mikel Melero, Julian Hueso eta Jose Ramon Lizanzu.

Erakusketak ezezik, musika emanaldi anitz ere izanen dira Zangozan azaroan zehar. Besteak beste Iruñeko Ganbara Abesbatzak kontzertua eskainiko du hilaren 17an San Salvador elizan eta, toki berean, Musika Eskolako talde guztiak ariko dira hilaren 22an; 25ean, berriz, dantza taldeak eta gaiteroak izanen dira.

Ikastaroei dagokienez, Nafarroako Argazki eta Zinema Elkar-

teak eta Bianako Printzea Erakundeak argazki ikastaroa antolatu dute; hilaren 17tik 19ra bitartean eginen da eta bertan parte hartzeko izenematea jadanik zabalik dago Kultur Etxean. Era berean, asteburu honetan, Zangozako Ikastolak eta Udalak antolatuta, Mikologiari buruzko jardunaldiak eginen dira.

Hilaren 30ean, joan den udan Pekinen (Txina) izandako Munduko Emakumeen Biltzarri buruz mintzatuko da Silvia Fernandez IPESeko kidea; 'Emakumeak Pekinen' izeneko hitzaldia Kultur Etxean arratsaldeko zor-

tzietan izanen da. Azkenik, Zangozan Olentzeroa aurreneko aldiz irten zela aurten 25 urte bete direla ospatzeko, Kultur Etxea hainbat ekitaldi antolatzen ari da. Hori dela eta, parte hartu eta lagundu nahi duen orori deia luzatu dio Kultur Etxeak.

Era berean, Zangozako Olentzeroaren 25. urteurrena ospatzeko lau lehiaketa antolatu dira: literatura, margolaritza, eskultura eta eszenografia. Lehiaketetan parte hartzeko informazioa Kultur Etxean jaso daiteke; lanak aurkezteko epea, berriz, heldu den asteazkenean zabaldu eta abenduaren 5ean itxiko da. X

Erriberri

Historia aztertzeko jardunaldiak

■ Chapitelen eta Udal Patronatuaren eskutik

Erredakzioa / Iruñea

CHAPITEL elkarteak eta Udal Kultur Patronatuak Erriberriko ikasketa historikoei buruzko lehen jardunaldiak antolatu ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Gobernuko Kultura Sailaren laguntzaz. Jardunaldiak joan den astelehenean hasi ziren eta igande honetan bukatuko dira. Erriberriko historiari buruzko hitzaldiak dira XV. mendeko historiako gertakizunei buruzko erakusketarekin batera jardunaldi hauen ardatza. Hitzaldietan plazaratutakoa, hain zuzen ere, jardunaldiak amaituta argitaratuko den liburuan jasoko dute antolatzaileek.

Astelehenez geroztik, Erriberriko historiari buruzko hainbat gai eta ikuspuntu jorratu di-

tuzte hizlariek. Besteak beste, XV. mendeko berrikuntza artistikoa edo erret boterea eta nobleziaren botereari buruzko gogoeta izan dira landu diren gai batzuk. Hitzaldiez gain, halaber, musikak ere izan du bere txokoa, eta Pro Musica Hungarica taldeak bete du. Asteazkenean kontzertua eskaini zuen Santa Maria elizan.

Gaur eta bihar ere, bestalde, egonen da zer entzun eta zer ikusi Erriberriko historiaren inguruan. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea den Fermin Miranda, hain zuzen, Erriberriko artxiboko Erdi Aroko ondasunari buruz mintzatu da gaur. Bihar, berriz, Chapitel elkarteak kideak hartuko du hitza eta 'Erriberri Per Orcoyenen liburuan' izenburuko mintzaldia eskainiko du. X

Agoitz

Agoizko Hiria margo lehiaketa

■ Bihar amaituko da lanak aurkezteko epea

Erredakzioa / Iruñea

BILAKETA kultur taldeak antolatzen duen Agoizko Hiria Nazioarteko Margolaritza Lehiaketaren 19. ekitaldia eginen da aurten. Beste urteetan ez bezala, aurten 600.000 pezetako sari bakarra emanen dute eta margolari bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du. Obrak olioz edo teknika mistoz egin behar dira. Lanak aurkezteko epea bihar amaituko da. Parte hartu nahi duenak, Bilaketa kultur taldearen egoitzara eraman behar du bere koadroa, Agoizko Francisco Yndurain kaleko 12. zenbakira, alegia.

Salvador Gutierrez Bilaketa kultur taldeko lehendakariak lehiaketaren aurkezpenean erran zuenez, hemeretzi ekitaldi egin ondoren izen handia du

Agoizko Hiria margo lehiaketak jada, eta margolarien artean oso ezaguna da: «beti daukate lan bat edo beste guri bidaltzeko».

Aurtengo lehiaketari dagokionez, epaimahaiko kideek onartuko dituzten lan guztiak Agoitzen hil honen bigarren hamabostaldian antolatuko den erakusketa ikusi ahal izanen dira. Halaber, beste urteetan garaile izan ziren lanak ere Agoizko Kultur Etxean erakusteko Udalarekin hitzarmena sinatu berri du Bilaketa kultur taldeak. Antzeko akordioa sinatu du Aoseko Udalarekin, herriko Batzargelan lan horiek aurkeztu ahal izateko.

Agoizko Hiria margo lehiaketaz gain, olerki eta narrazio laburren izen bereko lehiaketak ere antolatzen ditu urtero Bilaketa kultur taldeak. X

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Bi eta bat

TXUS, 'Mataforales' ezizeneko morrosko berriandarra, atezain trebea zen. Bere gorputz trebe eta sendoa eta esku handi eta indartsuek Iribar zarauztar handiaren irudia ekartzen zuten gogora. Patiko futbito ate txikiaren aitzinean erraldoi gaindiezina ematen zuen. Kontraeraso hartan aurkari hari baloia zertxobait aurreratu zitzaion, ez zen une batez ere duda-mudatan ibili. Lau pauso azkar bezain luze emanik baloiraingo heldu zen, eta sekulako ostikoa jo zion. Aterioa aho bete hortz geratu zen. Ez zuen ulertzen zer gertatu zitzaion instant bat lehenago bere hankaren pean egondako pilotari. Zortea izan zuen, hanka ere gutxiatik ez baitzitzaien baloia atzetik joan. Joaquín Prats zenak esaten ohi zuen bezala, baloi hura elurrez estalirik itzuli zen zerutik lurrera. Txusen jaurtiketa izugarri loratua izan zen. Larruzko baloia laugarren solairuko ziogetako leihoen parera heldu zen. Lauzpabost segundu besterik ez ziren igaro pilota berriro ere zorura bueltatu zen arte. Han geundenoi, baina, lau zpabost ordu igaro zirela iruditu zi-



tzaigun. Patioan beste inoliz baino preso gehiago geunden norgehiagokari so. Preso asko, preso guztiok pilaturik geunden porlanezko kantxaren inguruan. Gure begiak baloia begira zeuden, eta arerioaren ataren bidea hartzen zuela ikusi genuenean gure ezarriak, aho batez, txilio bera oihukatzen hasi ziren: «Gol! Gol! Gol! Gol!...». Beste taldeko atezaina ez zen Txus bezain trebea, eta baloia bere atara heldu zelarik, saiatu bazen ere, ez zuen harrapatu. Baloia atean sartu zen, eta presoek kantxan, Txus lepoan hartu genuen, eta berak irrintzi historikoa bota zuen: «Me cago en el Duque de Ahumada». Gol horri esker Amonal kartzelako futbol taldeak bi eta bat garaitu zuen Charango, guardia zibilez osaturiko taldea, iazko ligan. Ea heldu den larunbatean hasiko den aurtengo ligan Amonalek horrelako mementu zoragarri asko eskaintzen dizkigun. X

Hartzak eta Erronkari, urteetako eztabaida

Nafarroako Gobernuak desagertzeko zorian dagoen hartz arrea berreskuratzeko plana onartu du

Nafarroako Gobernuak hartz arrea berreskuratzeko plana onartu berri du, indarrean dagoen Fauna Babesteko eta Kudeatzeko Legearen agindua jarraituz. Aipatu legearen arabera, desagertzeko arriskuan dauden espezie guztiak berreskuratzeko plana jarri behar da martxan. Nafarroako Gobernuak, hain zuzen ere, desagertzeko arriskuan dauden espezieen artean sailkatu du hartz arrea laster argitaratuko duen zerrendan.

Eduñe Elizondo / Iruñea

PIRINIOETAN, gaur egun, bederatz hartz baino ez da bizi. Bederatzigarrena, gainera, orain dela zortzi bat hilabete jaino zen Biarno Garaian. Hartz-kumea, ama eta beste bost hartzeekin batera bizi da Iparraldean eta beste biak Aragoi, Anso eta Hecho bailaretan, hain zuzen. Anso bailaran bizi den hartz, ordea, noizbehinka Nafarroara etortzen da bisita egitera, Erronkariko ballarara zehazki. Hechokoak ere, gero era gustukoago ditu bertako basoak, eta gero eta gehiago hurbiltzen da gure herrialdera.

Hartz arrea berreskuratzeko planak Pirinioek hartzen dituzten lurralde guztietan onartu eta martxan jarri badira ere —Iparraldean, Katalunian, Aragoi eta Nafarroan—, animalia hauen etorkizuna ez dago batere argi eta zail da jakiten noizbait berreskuratu ahal izanen diren edo ez. Izan ere, hartz gehienak zaharrak dira eta eme bakarra dago, zurrerik, euren artean. Lurralde guztietako arduradunek, hala ere, argi dute plana martxan jarri behar dela, dagoenari behintzat eutsi ahal izateko, ezer egiten ez bada aurki ez baita Pirinioetan hartz bakar bat ere geldituko.

Kontserbazioa, segimendua eta heziketa • Felix Armendariz Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentuko Kontserbazio eta Mantenimendu Zerbitzuko burua da, eta berarekin mintzatu gara Gobernuak onartu berri duen planaren nondik norakoak argitzeko asmoz. Azaldu digunez, hiru sail ezberdin ditu planak: kontserbazioa, segimendua eta heziketa. Plana, halaber, Erronkariko hiru zona zehatzetan ezarriko da: Larrako erreserba naturala eta Aztaparretako erreserba integrarean batetik, Urralegi aldean —Urzainki, Izaba eta Garde— bestetik eta azkenik, Izaba eta Uztarrotz aldean, Larraneko mugara bitartean.



Lehen urtean % 50ekoa da hartz-kumeen heriotza tasa.

FERNANDO HUALDE

Planaren sail ezberdin bakoitzaren barruan, bestalde, neurri zehatzak aurrikusi dituzte Gobernuak teknikaiek. Kontserbazioari dagokionez, mugak ezarriko dira egur mozketak, ehiza, ganadu eta turismoan, hartzak inguruetan badabilta. Neurri hauen guztien xedea hartzaren bizilekua zaintzea da, Erronkarin dauden bitartean lasai ibil daitezen. Horretarako, besteak beste, ezin izanen dira zuhaitz guztiak moztu eta egurra ere ezin izango dute basotik berehala atera. Ganaduari dagokio-

nez, halaber, hartzek ardiren bat hilko balute dirusaria emango die artzainei Nafarroako Gobernuak. Hartz arrea batek orain dela hamahiru bat urte hil zuen azken ardian Erronkarin. Izan ere, jateko besterik ez dutenean baino ez dituzte ardiak hiltzen hartzek.

Hartzaren segimendua da Nafarroako Gobernuaren planaren bigarren atala. Felix Armendarizek segimenduaren garrantzia azpimarratzen du, «prestatu ditugun neurri guztiek hartzen azterketa eta ikerketa baitute, finen, oinarri». Nafarroako Go-

bernuak kontratatuta lanean ari dira dagoeneko bi biologo Erronkarin aldean, ugatza eta hartz berreskuratzeko planak aurrera eramateko asmoz. Heziketari dagokionez, azkenik, haurrei hartz berreskuratzeko duen garrantzia ulertaraztea da Gobernuak lortu nahi duen helburua. Horretarako, hainbat kanpainak jarriko ditu martxan.

Erronkarikoak ballarako eskubideen alde • XIX. mendean erdialdean, hartz arren ugari zegoen Pirinioetako baso-

tan eta Nafarroan ere bai, Iratiko oihanetik Zuberoako eta Aragoiko mugaraino bizi ziren mende honetako lehen erdian. Bigarren erdian, ordea, hartz kopurua murrizten hasi zen eta egun, bederatz hartz arren baino ez da bizi Pirinioetan. Egun, desagertzeko arrisku bizi dute Pirinioetako azken hartz arren hauek, eta hori, bai Nafarroako Gobernuko arduradunek, baita Erronkariko bertako biztanle eta ordezkariak dakiten gauza da. Nafarroako Gobernuak, beraz, hartz berreskuratzeko plana jarriko du martxan legearen agindua jarraituz. Erronkariko ordezkariak ere halako plan baten beharra ikusten dute. Erronkariko udaletan Nafarroako Gobernuak prestatu duen berreskuratzeko planak sartarazi dituen iritziei buruz Erronkariko Ballarako Batzarreko lehendakaria eta Erronkariko alkatea den Jose Carlos Garderakin mintzatu gara.

«Hartzak desagertzeko zorian daudela argi daukagu eta guk ere berreskuratzeko plana martxan jarri behar dela uste dugu», argitu du lehenik eta behin Erronkariko Batzarreko lehendakariak. «Nafarroako Gobernuak hainbat muga ezarriko dizkigula ere argi eta garbi dakigu» gaineratu du Garderak, «eta ez gaude aurka», nahiz eta bere ustez muga horietako asko ez dituen Nafarroako Gobernuak modu egokian planteatu. Erronkariko alkateak, hain zuzen, ugatzekin gertatutakoa gogoratzen du: «Ugaten kabi bat zegoelako ehiza debekatu zuten zonalde batean. Denborarekin, ordea, kabia beste leku batean egin zuten eta han ehiza egiten ahal zen bitartean, jada ugatzik ez zegoen lekuan debekaturik jarraitzen zuten. Hartzarekin ez dugu gauza bera gertatzerik nahi».

Erronkariko udaletako ordezkariarentzat, hala ere, ez da mugea arazo nagusia, ez horixe. Europako Elkartearen hartz berreskuratzeko Life programa maiatzean atzera bota zutenean ere, gaur plazaratzen duten aldarrikapen berbera jarri zuten mahai gainean: Erronkariko Ballarako Batzarren autonomia. «Nafarroako Gobernuak Batzarri hartz dagozkion neurriak inposatu nahi dizkigu».

Nafarroako Gobernuak onartu berri duen plana Europako Elkartearen Life programaren jarraipena bada ere —Elkartearen dirulaguntza jasoko du—, legeak aginduta betearazi behar dela azpimarratu du Armendarizek: «ezingo dute, beraz, Europakoak bezala atzera bota. Nahitanahiez jarri behar dugu martxan». Hala ere, bertakoen laguntzarik gabe oso zaila izanen dela onartzen du Armendarizek.

Erronkariko ordezkariak eta Nafarroako Gobernuako kideak behin baino gehiagotan elkartu dira balna ezer gutxi aurreratzen dute. Lehenengo bilera urriaren

Hartz arrea, lotsatia eta gautxoria

E.E. / Iruña. - Iparraldeko Pirinioetan orain dela hamasei urte jaiotako FIEP-Groupe Ours-Pyrennes (Pirinioetako Ekosistemari Buruzko Informazio Fondoa-Pirinioetako Hartz Taldea) ari da bertan bizi diren hartzei buruzko ikerketa eta segimendua egiten, hartz arre hauen bizitza, ohi-tura eta ibilbideei buruz ahalik eta informazio gehien lortzeko asmoz. Nafarroan ere, talde honetako kideak ari dira lanean.

Fernando Hualde talde honetako kide nafarra da eta berarekin mintzatu gara Pirinioetan bizi diren azken hartz arre hauen buruz. «Hartz oso animalia lotsatia da, nekez uzten du norbaitek ikus dezan eta batez ere gaueko iluntasuna du gustuko basoan zehar paseatzeko». Bere elikadurari buruz, hartzak oso jakintsuak direla azpimarratu du Hualdek, «urtaro bakoitzak ematen duena jaten baitute». Negua hartzuluan eman ondoren, pagaziak dira gustuko dutena, baina fruituak,

landareak, haziak, marubiak, masustak, erlauntzak eta inurritegiak ere ez dituzte bazterrean uzten. «Ardiak, gose deanean eta jateko besterik ez duenean baino ez ditu hiltzen hartzak».

Pirinioetan bizi diren bederatzi hartz arreei buruz ia guztia dakite Hualde eta bere kideek, urte osoan zehar aztertzen baitute egiten duten guztia. Hartzak, ordea, ez du erraz argitzen non ibili eta zer egiten duen eta non dagoen jakin ahal izateko, uzten dituen aztarnak ikertu behar dituzte adituek. «Elurra edo loiaren gaintetik pasatzen direnean agertzen dira aztarnarik argienak, bestela, zaila baita hartzaren oinatzak lurrean ikustea, handiak izan arren, pisua lau hanketan banatzen baitute». Aztarnarik erabakigarriena, hala ere, hartzek galtzen duten ilea da, «azterketa genetikoan bidez datu asko lor baititzakegu ile horiei esker».

Hartz arre bat jaiotzen orain zortzi bat hilabete Biarno Garaian. «Iaz, bi hartz

helduen oinatzak aurkitu genituen batera arreske garaian eta hori ezinezkoa da bietako bat emea ez bada. Zortzi hartzen artean emerik ez zegoela uste genuen baina hori ikusita, bazitekeela jakin genuen eta zelatan egon ginen». 1989. urtetik ez zegoen inolako jaiotzaren berririk eta hori dela eta, pozik hartu dute berria FIEPeko kideek, baita hartza berreskuratzeko lenean murgilduta dauden arduradun guztiek ere. FIEPeko arduradunek, argazki kamera finakoak jarri zituzten basoan zehar eta azkenik, hartz emea bere hartz-kumearekin ageri den argazkia atera zuten. Bertako hainbat artzainek ere jakinarazi zieten lehendik hartz txikia ikusi zutela. «Lehenengo urtean, hala ere, % 50ekoa da hartza hiltzeko arriskua» gogorarazi du Hualdek.

Nafarroako Gobernuak onartu berri duen planari

buruz ere, duen iritzia jakinarazi digu FIEPeko kideak. «Erronkariko biztanleen laguntza funtsezkoa da plana aurrera atera ahal izateko» nabarmendu du Hualdek, «inork ez baititu, nahi izanez gero, hartzak eurek baino hobeto zainduko». Bere ustez, Nafarroako Gobernuak egin duen plana ona da, baina ez ordea, martxan jartzeko modua, «bertakoak behartuz ez baitute ezer lortuko, azken belaunaldietan galtzen hasia zen hartzarekiko gorrotoa eta beldurra piztea baizik. Honela, noski, hartza izanen da galtzaille bakarra».

Fernando Hualdek hainbat akats ikusten ditu planaren planteamenduan. «Planak hartza berreskuratu arte iraungo duela aipatzen da. Erronkarin, ordea, hartz bakarra edo gehenez bi baino ez dira ibiltzen eta ez beti. Nahiko helduak

dira eta urte gutxi barru hilko dira. Espeziea, ordea, ez da oraingoz berreskuraturako, beraz Erronkarin jarritako mugek martxan jarraituko al dute? Gauza asko dago argitzeko». Fernando Hualdek ere hartz gehiago sartzei buruz Gobernuak hartu duen erabakia zalantzan jarri du: «Nafarroako Gobernuak ez du hartz gehiago sartu nahi, Erronkarin noizean behin bakarrik egoten direlako. Gure ikerketen arabera, ordea, Anso eta Hechoko hartzek gero eta denbora gehiago pasatzen dute Erronkarin. Hartz gehiagorik gabe, gainera, ezingo da espeziea berreskuratu». Iparraldean, ordea, Biarnon, datorren urtean hasiko dira hartz gehiago sartzen. Jugoslavia ohiatik ekarriko dituzte, seniderik hurbilenetakoak baitira Asturriakoak kenduta. «Bertakoen egoera ordea, ez da oso ona eta ezin da hartz bakarra ere atera». Datorren urtean bi hartz sartuko dituzte eta 2000. urtera bitartean, bost sartuko dituzte osotara.



Erronkariko basoak oso gustukoak ditu hartz arreak.
FERNANDO HUALDE.

3an izan zen. Orduan Felix Armendariz eta Carmen Ursua Ingurugiro Saileko teknikaria Erronkariko bi ordezkariarekin bildu ziren Gobernuaren plana azaltzeko. Ondoren, urriaren 25ean, Erronkariko Bailarako Batzarreko kideak Javier Del Castillo Ingurugiro kontseilaria-ekin, Juan Cruz Alli lehendakariarekin, Javier Oneriz Ingurugiro Departamentuko zuzendariarekin eta Felix Armendariz berarekin bildu ziren Iruñean. Bileran horretan, planari alegazioak aurkezteko epea abenduaren 31ra bitartean zabaltea onartu zuten. Bestalde, Nafarroako Gobernuak kideek plana aurrera ateratzeko bide bakarra alde biei arteko elkar-riketa dela ikusirik, zalantzan dauden puntuak aztertzei lan-taldeak osatzeko aukera eskaini zieten Erronkariko ordezkari-ekin. Gobernuaren proposamena entzunda, aukera hori aztertzen ari dira Erronkariko Bailarako Batzarreko kideak baina oraindik ez dute inolako erabakirik hartu.

Izaban Pirinioak

dituzten herrialdeetako

ordezkariak • Erronkariko Udaletako ordezkarien eta beste herrialdeetako ordezkarien arteko bilerak ere egin izan dira azken egunetan, «beste lekuetan plana nola ezarri duten ikusi nahi baitugu», azaltzen du Gardek. Urriaren 12an, hain zuzen ere, Baretouseko ordezkariarekin bildu ziren Oloruen Erronkarikoak. Bertan, hain zuzen, udaletako ordezkariak, ehiztariak, basazainek eta Gobernuak kideak osatutako taldearen esku dago hartza berreskuratzeko planaren



kudeaketa, «baina gehiengo udaletako ordezkariak dute». Garderentzat hori izan daiteke Erronkarin ere irtenbiderik onena. Joan den larunbatean ere —urriak 28— Izaban elkartu ziren Pirinioak dituzten herrialde ezberdinetako ordezkariak, bakoitzak bere esperientziaren berri ematearren.

Nafarroako Gobernuak teknika-riak ere Erronkariko Bailarako herrietan izan dira azken egunetan bertako biztanleei hartza berreskuratzeko planaren berri emateko, baina bilera gehienetan herrietarren kezak baino ez dituzte entzun Gobernuak ordezkari-ekin. X

Salda hotza

■ Demagun berrargitaratu nahi dugula idazle zendu baten liburu bat.

Demagun berrogeiren bat urte duen lana dela.

Demagun liburuaren edukina (gizart geografia) ez dela bat heldu oreiko egoera adminis-tratiboarekin.

Demagun, ba, jatorrizko liburua moztuz egokitzen dugula oreiko egoerari —laketago dugunari— eta argitara ematen. Hau guztia egilearen baimenik gabe, naski, zendua beita eta aldaketaren berri irakurleari eman gabe.

Demagun, finitzeko, idazle hau izen handia dela espagnol literaturan... asmatuko ote zinukete zer kalapita eta azantza sortuko lirakeen guhaurek egiten bagenu halakorik? Nola inarrosiko lirakeen bazterrak? Terrorismo intelektuala, hildakoei begirune eza, kultur ondarearen zapaltzaileak, nazionalismo erradikalaren ahalkegabetasuna... Eskandala geitza, duikabe, eta arrazoiarekin.

Segur nitz epailaren aintzinean salatzeo gauza dela.

Alta ixtorio hau egitan gertatua eta, oker ez bano, inork salatu gabekoa da.

Plo Baroja dugu aipatu idazlea. Ez daiteke erran arras aberrizale (euskal aberrizale, araz) zenik, baina ezondu, ezontzen zuten Herria eta maite.

Halaxe 1951n —Frankismo bete-betean— idatzi eta argitaratu zuen *Pais Vasco* izeneko liburua. Bertan ibilbide bat segituz, zazpi probintziak kurrizten zuten bidez-bidez, bazterretan atxemanak kon-tatuz, etxeak zirela nola paisaiak, jendeak nola kantak... mapak ere bazituen liburuak probintzi-ziak eta Herri oso-koa.

Gauza da duela urte gutxi zemeit —demo-krazia (?) bete-betean— berrargitaratu dutela li-burua, baina txikiturik (erranahi guztiekin), hiru probintzi eskas ageri be-tira.

Halako gehiegikeria-ren hobenduna nor ote den ez dakigu. Dena dela liburuaren aintzin solas berria haren iloba zenak egina da.

Omenaldi tenore hontan ez dadin izan dena salda bero, hil eta gero. ■

Xanti Begiristain

Zabor botatzaileak

■ Garai batean, hau da, orain dela bi hamarkadatik atzera, gizarte honek jende gutxiago zuen eta batez ere ez hain kontzentratua. Beste alde batetik, gizarte ez zegoen honen aurreratua, eta hori zela eta hondakin gutxiago sortzen zuen. Gainera ekoizten zuen zaborra ez zen hain sofistikaturia eta kasu gehienetan, nork berea suntsitzen edo desegiten zuen etxeko sutegian eta baratzen errez; aldi berean, garai hartako jendeak zarama erabiltzen zuen ongarriztat; beraz, esan liteke jende hura oraingo asko baino askoz ere ekologikoagoa zela, alde batetik zabor gutxiago sortzen zuelako eta bestetik, egiten zituen hondar haiek era egoki batez aprobetxatzen zituelako.

Baina gaur egungo gizartearen denok sortzen dugu zabor gehiago eta mota askotakoak gainera, esate baterako, produktu kimikoak, nuklearrak, burdinak, pilak, plastikoak, latak, beirak, paperak, kartoiak, kartutxoak, botilak, poteak, zilar-papera, zigarrokinak, fruitu lehorren azalak, eta abar. Zertarako jarraitu? Arzoa orain heldu zaigu: zer egin behar ote dugu horrenbeste tona zaborrekin? Beno, aterabideak uste dut argi samar daudela, hots, ez badugu planeta osoa hondatu nahi, lehenago edo beranduago, pentsatzen dut ahalik eta gehien birziklatu beharko dugula; horretarako pentsamolde aldaketa handiak eta diru inbertsio ikaragarriak beharko dira. Baina horiek hitz handiak dira, eta

izango dira gai hori nik baino askoz hobeki aztertuko duten pertsonak.

Nik, gaur, beste afera bati heldu nahi nion, eta horrelaxe egingo dut jarraian. Erreparatu al diozue inoiz hainbat eta hainbat lekutan agerian egoten den zakar piloari? bai, ezta? beno, niri oso harrigarri eta amorratzeko modukoa gertatzen zait zaborrak pilaka botata aurkitzea mendietan, basoetan, erreka-ibai bazterretan, bide ezpondetan eta abarretan. Gaizki deritzot eta salagarria dela uste dut. Esate baterako, antzeko hondakin piloak, gogoratzen dut, aurkitu izan ditudala Larraun ibaiaren jaioleku ondoan, Etxarri-Larraungo Auseneko bordak baino lehenago eta abar.

Beno ba, gorago esan dudana bezala, arrunt gaizki iruditzen zait hau guztia, baina zer deritzozue beste honi, alegia, eskuetan soberan dugun guztia bertan botatzeari. Non? Ba, esaterako espaloietan, zinetokietan, antzokietan, pasabideetan, pasealekuetan, lorategi eta belardietan eta abar. Nere ustez, jende gehiena

bat etorriko da ekintza horiek, behinik behin, oso txukunak ez direla pentsatu eta esatean.

Baina badago besterik. Azken urte hauetan, batez ere eguraldi ona dagoenean, konturatu naiz neska-mutil gazte askok utzi ohi dituztela leku publiko batzuk zabortege bihurtuta. Jakina, ez dira izaten oso hondakin kutsagarriak, ez, adibidez, paperak, plastikoak, botilak, latak, fruitu azalak, zigarrokinak, kartoiak eta abar. Baina kasu gehienetan, egia izaten da bertan edo oso hurbil behintzat, izaten ohi dituztela paperontziak, edukigailuak, zakarrontziak eta beste. Hala eta guztiz ere, ez dira molestetzen hondakinak gordetzen eta gero leku egokiren batean jartzen, ez, baizik eta han non soberan dauzkaten botatzen baituzte; askotan, nora botatzen dituzten ere begiratu gabe. Ikusi izan ditut botilak atzerantz botatzen, atzean inor ote zegoen ere begiratu gaberik. Eta paperontzia, agian, handik hiru bat metrora zegoen. Halakorik



sarritan gertatzen da, esate baterako, Iruña Park hotela eta Irrintzi dorre artean dagoen belardian, batipat, lehen esan dudana bezala, udaberri, uda eta udazkenean.

Ni ez naiz inoiz ausartu ezer esatera inori. «Eta hiri zer axola dik?», «nor haiz hi deus esateko?», edota «horretarako zeudek garbitzaileak! jaso ditzatela haiek» eta antzeko erantzunak entzuteko beldur naiz, horregatik isildu eta ez-ikusiarrena egin ohi dut. Bai, egia esan, koldar handia naiz.

Baina burura etortzen zaizkidan galderak hauexek dira: zer egiten da gaizki? zergatik gertatzen da hori? zer dela eta oraingo gartetxoak ez dira txukunagoak? Izan ere, gure ikas-garaian inoiz ez ziguten bereziki irakatsi garbiak izaten, zentzu horretan, baina azken bi hamarkadetan gutxienez bai, ikastola, eskola, institutu, unibertsitate, irratia, telebista, prentsa, familia, gizarte eta abarretan; hortaz, zerbaitek huts egiten du. Zer ote da? Horra hor gogoeta gai bat! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Azpiatzutarrak eta Gipuzkoako dantzak

■ Donostiako Koldo Mitxelena kulturguneak duen liburutegian Gipuzkoako dantzak kondagai dituen liburu bitxi xamar bat badago, gaurkoan hona ekartzeari egoki deritzoguna. Hiri bereko Pio Zuazuaren irarkola tipografiko-fotografikoan inprimatu zen J.J.A. hasmenta hizki epdai-nagarriz sinaturik ageri den 16 orrialdetako 1858. urteko idazki llaburrari erreparatuko diogu, *Descripción de las diversiones públicas de Guipúzcoa y en particular de sus bailes izenburuaren azpian agertu zen lanttoari alegia*. Bertan gordetzen den aleki beraren atzekaldean, eskuz izkiriari txartel zaharkitu bat itsasita badager, honako ele hauek dakarrena: «Bonaparte posea el ejemplar, lo veo en Victor Collins-Attempt at a Catalogue of the library of the late. Prince Louis-Lucien Bonaparte by Victor Collins, 1894. No está en las bibliografías y catálogos de obras vasco navarras por Nicolas de Soralue y Zubizarreta, Vitoria, 1871. Allende Salazar no. Sorarrain lo registra, n° 754, pero sin descubrir el autor y tomándolo como indicación del Príncipe Bonaparte». Honaino aipa txartelaren testua.

Lanttoak Giputzerrira du belanda, hara dago aiduru. Ikuspegi xume deslaia, soraioki egina, apologiesia sobera, nardatzeko gisan. Liburuxkak Gipuzkoako deskribapen apologetikoa du hasialdi, eta hasian hasi pilota jokuaeren berri ere eskeintzen du, berehala, eta gehixegi hastandu gabe, dantza giputzen berebiziko deskribapena luzatzeko laugarren orrialdetik aitzina. Iztuetaren kondaira ez dakar inondik, ez eta aipatu ere, benetan susmagarri hagi dena, alta, Zaldibikoak halzatuak ere baitakartza, esaterako eztabaida moralaren inguruko zioa, Aierbe izeneko presbitero baten berri emanez. Halarik ere, Frai Bartolomeren lanaz ez du txintik ere esaten.

Jon Bilbaoren bibliografian badira jasoak honako bi lan hauek: alde batetik aurrekaldea baino ezagutzen ez den *Descripción de algunos bailes históricos peculiares de Guipúzcoa con reglas instructivas para ejecutarlos debidamente* izenburuko idazkia, Jose Antonio Azpiatzuk egina, Burgoosen, 1848. urtean, eta bestaldetik auto honetarako hautatua duguna. Herriaren Lagunen aldirkarian urte gutxi batzu lehentxeago, Joakin Irizar zenak Bilbaok zekarren aurrekalde horren berri ere eman zuen, izan ere bere liburutegian zituen paper abondo guzian artean horixe gordeta baitzuen. Atsekabetzen da Aita Donostiak ezagutu ez izana.

Azpiatzuz ezer guti dakigu. Alde batetik jakina da Iztueta beraren alaba zen Maria Ignaziarekin ezkondu zela Donostian 1828. urean. Aita Zumarragakoa zuen Joxe Antonio Azpiatzu Barandiaran Segurako semea genuen, ezkongabea zelarik Ataunen bizi ere. Iztuetaren testamentuan berriro agertzen zaigu 1845.ean Burgoosko biztanle bezala. Guziarekin ere, M^a Ignazia Iztuetaren 1859. urteko heriotza agiriak dioenez Juan Bautista Etxabe izeneko bat izan zen alargun geratu zena, beraz, Azpiatzu bere emaztea baino lehen hil zela aztiatzea herketz legoke.

Bestaldetik ere, Joxe Antonio Azpiatzu bat dugu Bonaparteren kolaboratzaile. Honek, Uriarte aitak gipuzkerara itzuli zuen bibliaren zuzentzailea dugu, oroit bedi bestenaz Uriarte bizkaitarra zela. Alabaina, ezoso laga zuen lana. Hau guziaz gain, Bizkaiko Aldundiaren Liburutegian badira oraino J.A. Azpiatzuk Bonaparte Printzeari igorri guttun saio bat galegoari buruzkoak.

Badirudi, Iztuetaren suhiak, Zuriak ondu 1824. urteko Gipuzkoako dantzen kondairaren aldaira antzeko zerbait egin zuela. ■



Nafarroako taldeko txapelketako maila nagusiko bigarren jardunaldiko partida, 1995eko urriaren 14an jokatu.

Unai Garbisu (Iruñeko Orvina 'A'), 2.355 ELOkoa — J.J. Cortes (Iruñeko Anaitasuna) 2.270 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.f3,e6; 7.Ae3,a6; 8.Dd2,Ae7; 9.o-o-o,Zd4; 10.Dd4,b5; 11.Eb1,Ab7; 12.g4,h6; 13.h4.


Orain arteko oso klasikoak izan da. Laster hasiko dira txuriak presionatzen. 13.....Da5; 14.Ah3,b4; 15.Ze2,d5. Ikus koadroa. Eraso egiteko unea iritsi da. Jo ta su, beltzak suntsitu arte. 16.g5,g5; 17.g5,Zd7.

Beste tokietan ('g8', 'h7') traba egingen zuen. Baina

hor ere aukera paregabea ematen die txuriel.

18.Ae6,Gh1; 19.Ad7 xa,Ed7; 20.Gh1. Peoi bateko abantaila eta errege beltza kilikolo. 20.....Gd8; 21.Gh7,Ec8; 22.e5,Db5; 23.Zc1,Af8; 24.Gh8,De4.

Partida erabakitzekeo parada. Txuriel ez dute barakatuko. 25.Dc4 xa,c4; 26.Ab6,Ge8; 27.e6. Plan maltzuraren jarraipena, peoi beltz horiek urrundu nahian. 27.....e6; 28.Ac5,Ac5; 29.Ge8 xa,Ed7; 30.Gg8,Af3. 'Ad4' egin izan balute, 'Ze2' jokaldiak hankaz gora jarriko zituen beltzak. 31.Gg7 xa,Ed6; 32.g6,Ad4; 33.Gg8,Ee7; 34.g7. Argi ikusten da 'Ef7' jokaldiaz alfila galtzen dela (Gf8 xa). Aurrikuspen horiekin, beltzak makurtu egin ziren.



Etorkizun berriko merkatua

Nuevo Futuro elkarteak zabaldu du merkatu txikia ikus daiteke Nafarroako paperfabrikako eraikinean

Nafarroako Nuevo Futuro (Etorkizun Berria) elkarteak merkatu txikia zabaldu du aste honetan Nafarroako paperfabrikako eraikinean. Joan den larunbatean zabaldu zituen ateak eta igandera bitartean hamaika bitxikeria egonen da bertan ikusgai, Jorge Oteizaren hiru eskultura barne.

Edume Elizondo / Iruñea

ASTE osoan zehar Nafarroako Nuevo Futuro (Etorkizun Berria) elkarteak antolatutako merkatu txikia ikusgai egon da Nafarroako paperfabrikako eraikinean. Gaur eta bihar ere bertara hurbiltzeko aukera izanen dute orain arte joan ez direnek. Goizeko hamaikak eta gaueko bederatzia bitartean prezio guztietako bitxikeriak erosteko aukera izanen dute bisitariek, ehun pezeta baino baliore ez duen tonbolako txarteletik hasi eta Jorge Oteizak eman eta Faustino Aizkorbekek lau milioi pezeta tasatu duen eskulturarekin bukatu arte.

Osozara 30 postuk osatzen dute Nuevo Futuro elkarteak antolatutako merkatu txikia: eskulanak, arropa, artelanak, bitxiak, jatekoak eta abar. Iruñeko hainbat jatetxe ere merkatu txikira eraman dute negozioa eta bederatzietatik aurrera eta eguerdian ere, bertan bazkaldu edo afaltzeko aukera eskaintzen dute. Merkatu txikian ikusgai dauden gauza batzuk jabeek oparituak dira. Beste batzuk, ordea, merke erosi dituzte antolatzaileek, eta azkenik, beste hainbat deposituan daude bertan eta, salduz geroz, komisioa eskuratzen du elkarteak. Merkatu txikiko postuen artean ikusminik handiena sortu duena, hala ere, arte galeria dela erran daiteke. Jorge Oteizaren hiru eskulturarekin batera, Francis Bartolozzi, Patxi Idoate edo Javier Viscarret margolarien lanak ere bertan dira ikusgai, beste hainbat artistaren lanekin batera.

Ekitaldi bereziak prestatu dituzte • Horrekin guztiarekin batera, hainbat ekitaldi berezi prestatu dituzte antolatzaileek. Aste osoan zehar, adibidez, arte, gastronomia, kazetaritza eta pinturari buruzko hitzaldiak burutu dituzte eta gaur ere, elkartasuna eta kirola izenburuko mintzaldia izanen da entzungai Nafarroako paperfabrikan. Musiak ere bere txokoa izan du merkatu txiki honetan eta arratsaldero entzun ahal izan da, arratsaldero talde ezberdin baten eskutik. Txikienez, berriz,



jaialdiak antolatu dituzte. Bihar, hain zuzen ere, arratsaldeko bostak eta zortziak bitartean ospatuko dute haurrek merkatu txikiko euren laugarren besta, 500 pezeta sareraren truke. Azkenik, helduentzat, mus txapelketa antolatu dute eta, azken egunetan bezala, gaurtik igandera bitartean ere beste hainbat partida jokatuko dituzte.

Nafarroako Nuevo Futuro elkarteak antolatu duen lehen merkatu txiki honen bidez, helburu jakin bat bete nahi dute: Nafarroan, Perun eta Kroazian

eraiki dituzten haurrentzako etxeak aurrera atera. Egunduan merkatu txikira hurbildu den jende kopuruak antolatzaileek egindako aurrikuspen baikorrena ere gaitu du. Lehen hiru egunetan, bederatzimila lagun pasatu ziren bertatik eta une askotan txiki gelditu zen paperfabrika. Osozara 30 bat etxe sortu ditu elkarte honek eta bertan 300 bat haur bizi da gaur egun. Ignacio Ventura elkarteak Nafarroako zuzendariak merkatu txikiaren garrantzia azpimarratu eta halako ekitaldi bat egiten duten lehen aldian dela nabarmendu du: «Orain arte lehenik lan egin eta gero publizitatea landu dugu baina garaiak aldatzen dira eta egun alderdi biak dira garrantzitsuak», azaldu du Ventura. Izan ere, diru asko behar da egun martxan dituzten etxe guztiak aurrera eraman ahal izateko: «Nafarroan bakarrik, gure etxeetan bizi den haur bakoitzeko milioi bat terdi pezeta inguru gastatzen dugu urtero».



Jende ugari hurbildu da Nuevo Futuro elkarteak antolatu duen merkatu txikira. JOXE LACALLE

Nafarroan, Perun eta Kroazian

NUEVO FUTURO elkarteak 1971. urteko ekainean sortu zen Iruñean. Orduz geroztik, Nafarroan, Kroazian eta Perun 30 bat etxe eraiki ditu familiarik gabeko haurrentzat. Osozara 300 bat neska-mutil bizi dira haietan. Lehengo etxeak Nafarroan bertan sortu zituzten: bederatzimila Iruñean, bi Tuteran eta bat Izurdiagan. Kroazian, berriz, 1993. urtean eraiki zituzten lehen etxeak. Varazdin-en lau etxe daude, bi Samobor-en, beste bi Spliten eta bat Cakovec-en. Perun, azkenik, lau etxe egin dituzte Puerto Esperanzan, hiru Puerto

Maldonadon eta beste hiru Quillabamban. Etxe bakoitzean, zazpi eta hamar bitarteko haur kopurua bizi da, eta beraiekin batera bi begirale. 1986. urtean akordioa sinatu zuen Nuevo Futuro elkarteak Nafarroako Gobernuarekin eta orain dela bi urte, berriz, Europako Elkartearekin. Orduz geroztik, bi erakunde hauen laguntza jasotzen du Nafarroako elkarteak. Nafarroan, gainera, Nafarroako Gobernuaren bitartez ailegatzen dira haurrentzako elkarteak: «Gizarte Ongizateko Institutuaren bidez». Horrela, ama ezkongabeen seme-

alabak, arazoak dituzten gazteak, banatu diren gurasoen seme-alabak eta abar izaten dira bertara ailegatu direnak.

Kroaziako proiektuari dagokionez, 1992. urtean sortutako asmoa dugu. Kroazioa, hain zuzen, gerratea eta honen ondorioak kontuan hartuz aukeratu zuten. 1992. urteko abenduan Kroazian egon ziren elkarteak kideak eta urtebeteren buruan bertako lehen etxeak eraiki zituzten. Erran bezala, bederatzimila daude Kroazian egun eta 90 haur bizi dira haietxetan.

Peruko proiektua, bestalde, 1994. urtean

jai zen. Iazko abuztuan Peruko eta Nuevo Futuro elkarteak ordezkariak bildu ziren Iruñean eta proiektua martxan jartzea erabaki zuten.

Hemendik aurrera, merkatu txikia bezalako ekitaldien bidez, egun martxan dauden proiektuak sendotu nahi dituzte Nuevo Futuro elkarteak kideak, eta, horrekin batera, 1996. urteaz geroztiko aurrekontuak ziurtatu. Haurrentzako etxe berriak eraikitzeko asmoa ere badute Nuevo Futuroko kideak. Epe motzerako, hain zuzen ere, Kolonia aukeratu dute eta epe luzerako, berriz, Mexiko. X

◆ Carlos Megrano ◆ NUP-EKO ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Abesbatza gazte asko ditugu»

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) bere abesbatza propioa duela iruindar gutxi dakiten gauza da. Halaxe da, ordea, eta jada hiru urte igaro dira abesbatzako kideak lehen aldiz bildu zirenetik. Egun, 36 abeslari inguruk osatzen dute NUPeko abesbatza eta guztiak dira bertako ikasle. Carlos Megrano da zuzendaria eta berarekin mintzatu gara urte hauetan burutu duten lanari buruz.

Edurne Elizondo / Iruñea


IAZ eskaini zuen NUPeko abesbatzak bere lehen kontzertua unibertsitatean bertan, eta, lortutako arrakastak bultzatuta, unibertsitatek atera eta beste zenbait tokitan abesteko asmoz dabilta bere kideak. Euren asmoa egia bihurtzeko gogor ekin diote lanari ikasturte berri honetan, «jendeak gure lana ezagutzera nahi baitugu».

■ Nola sortu da NUPeko abesbatza?

Ikasleen ekimenez sortutako taldea da NUPeko abesbatza. 1993. urteko maiatzean parte hartu nahi zuten guztiei dei egin genien eta, egia erran, ikasleen erantzuna ezin hobea izan zen, 70 bat lagun agertu baitzen. Gure asmoa joan den ikasturtean abesten hastea zen eta horretarako etorritako guztien artean aukera egin behar izan genuen. Lazko urrian, beraz, lanean hasi ginen eta egin dugunarekin pozik gaude.

■ Aurten ere lanean jarraitzeko asmoa duzue.

Bai horixe. Abesbatza sortu zenetik gure helburuak argi eta garbi planteatzen saiatu gara. Hartu behar izan genuen lehen erabakia izan zen lagun arteko abesbatza egin nahi genuen edo proiektu serio eta sendoa. Bigarren aukera hautatu



Carlos Megrano da NUPeko abesbatzako zuzendaria.

JOXE LACALLE

dugu. Hemendik aurrera, beraz, gure lana indartu eta hobetu nahi dugu, abesbatza ona egin, finean. Abesbatzen federazioan sartzea ere pentsatzen ari gara. Horretaz gain, beste unibertsitateekin ere harremana izan nahi dugu, hemendik kanpo ere kontzertuak eman ahal izateko.

■ Zaila izanen da, ordea, ikasketak eta abesbatza bateratzea, ezta?

Zaila da, bai. Gogorrena ordutegia da, arratsaldeko zortzi t'erdia aldera elkartzen baikara eguneroko. Egun guztia klasean eman ondoren, hala ere, gustura hartzen dugu abesbatzako lana eta lasaitu ere

egiten gaitu. Erran beharra dago hasieran abesbatza sartu zen jende anitz ilusio handirik gabe sartu zela baina denborarekin meze duela konturatu da.

■ Orain dela hiru urte sortu zen NUPeko abesbatza, baina bada oraindik eza gutzen ez duen jende anitz unibertsitatean berean ere.

Bai, tamalez hala da, nire ustez. Agian gure errua izan da, ez baikara publizitateaz asko arduratu. Taldea ongi osatzeari eman genion hasieran lehentasuna, porrotaren beldur baikinen. Abesbatza, ordea, sendotuz doa egunetik egunera eta hemendik aurrera gero eta jende gehiago ezagutuko duela uste dut.

■ Europa osoko abesbatzak Nafarroara ekarri dituen zikloa martxan da egun hauetan Iruñean.

Tolosa ere, abesbatzarik onenen bilgune izan da. Zer deritzozu?

Zoragarria. Tolosa, zehazki, jendeak gauza ederrak egiteko duen borondatearen adierazgarri da nire ustez, eta Iruñea baino txikiagoa dela kontuan hartu behar da. Askotan egon naiz Tolosan abesbatzak entzuten eta benetan zoragarriak dira. Antolakuntza ere ezin hobea da. Tolosako lehiaketak maila handiko abesbatzak daudela frogatzen du baina horrek oso isalada txikia du Nafarroan. Aurten, Nafarroako Abesbatzen Elkarteari esker Tolosan zer egiten duten jakin ahal izan du jendeak, baina orain arte oso jende gutxi zuen Tolosako lehiaketaren berri. Abesbatza hauek entzutea, nire ustez, oso interesgarria da etxean zer daukagun jakiteko. Hau da, Tolosan biltzen diren abesbatzen parean ezer gutxi

s o s l a i a

Hautzaroan piztu zitzaion musikarekiko benetako zaletasuna. Hamasei urte zituenean bere sorterriko abesbatza sartu, Azagran, eta bertan eman zituen musikaren eta abesbatzen munduan estreinako urratsak.

Ondoren, abesbatzako beste bi kideekin batera Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatutako zuzendaritza ikastaroetan parte hartu zuen Hondarribian. Ikastaro hauetan musikari, abeslari eta orkestra zuzendari anitz ezagutu zituen, eta haien aholkuak eta kontuak adituz, aurrerantzean abesten jarraituko zuela erabaki zuen.

Iruñeko abesbatza hasi zen abesten. Bere ibilbidea, hala ere, ez zen hor amaitu; Iruñeko abesbatza utzi ondoren, Gaitarre antzokia izan zen NUPeko abesbatzako zuzendariaren hurrengo geldialdia. Abeslariak behar zituztela jakin zuelarik bere burua aurkeztu eta hantxe arri da gaur egun zereginean.

egin dezakete hemengoek.

■ Nafarroako abesbatzak zaharkituta daude, beraz, zure ustez?

Nire ustez, erran dudana bezala, bada betikoa behin eta berriro errepikatzen duten abesbatzak. Ez dut abesbatza horien lana gaitzetsi nahi, ez horixe, baina betikoaz gain besterik ere badagoela jakin behar dute. Bestalde, Nafarroan abesbatza gazte asko dago eta lan polita egiten ari dira. Sine Nomine, adibidez, lehen ere Irunaldi zegoen, eta abar. Abesbatza hauetan jende gazte asko dago eta nire ustez aberastasun handikoak dira, ilusio handia baitute. Administrazioak hauen lana bultzatu beharko luke ene iritziz, borondate izugarria duten talde asko baitago lan egiteko prest. Arazoa da, nire irudiko, Nafarroan maila oso baxua dela.

«Ez gara lagunarteko abesbatza, gogor egiten dugu lan eta gure asmoa unibertsitatek kanpo ere abestea da»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI ERØA

